

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 12. atala

DATA: 2024/09/13

GUREAN

BUELTAN GARA!

Ikastolako familia osoa martxan jarri da aste honetan. Asteazken zehar erritmoa hartzen joan gara eta motorrak berotu ditugu pixkanaka pixkanaka.

Lagunekin elkartu gara berriro, mundua deskubritzen jarraitu dugu, udako bizipenak elkarbanatu ditugu gure gelakideekin eta abentura berriei ekiteko gogoia piztu zaigu beste behin ere.

Ikastolan, uda honetan eta urtero bezala, ez dugu berrikuntzak egiteko aukera galdu. Portxeko teilatua konpondu dugu itoginei aurre egiteko. Horretaz gain, joko inklusiboak ekarri ditugu, jolas garaian ikasleen arteko harremanak hobetu nahian. Bukatzeko, aurten irratsaio berezi bat jarriko dugu martxan... Ongietorri AmeslariOn irrattira!

GURE INGURUAN

LEZOKO SANTAKRUTZAK

Santakruz jaiak irailaren 16ra arte ospatuko dira Lezon. Egun horietan 60 ekitaldi izango dira herritar guztientzako, haur, gazte zein helduei zuzendutakoak.

Abuztuko Kilometro Lezo zikloan bertan behera gelditu ziren bi emanaldi ikusteko aukera egongo da: Harrobi dantza taldearen Geure(R)a ikuskizuna (larunbatean, 22:45ean, Santo Kristo basilikaren paretan) eta Tio Teronen Semeak taldearen Haurreskolari dantza emankizuna (igandean 20:00etan, Goiko Plazan).

EGITARAUUA:



“IZAN ARRANTZALE KAIATIK”, FAMILIAN

NON: Kofradia - Itsas Etxea/Donostia

Zure seme-alabek arrantza eta itsas ingurumena ikastea nahi duzu? Haiekin gozatu nahi duzu arrantzako trikimailu eta txoko berriak ikasten dituzuen bitartean?

“Izan Arrantzale Kaiatik” zuen aukera da!



Arrantzara joatea errazten duten maren arabera, jardueraren ordutegia goizez edo arratsaldean izango da, 9:00etik 13:00era edo 15:00etatik 19:00etara.

Arrantza leku nagusiak Donostian izango dira, baina meteorologiaren, erabili beharreko aparailu moten eta arrantza espezieen arabera, Pasaia, Getaria, Irun eta Hondarribia bezalako lekuetara joan ahal izango gara.

Arrantza-jarduera hau gutxienez 4 pertsonako kuadrilla batentzat antolatuko da. Jarduera honetan interesatuta bazaude, jarri harremanetan ekitaldiak@kofradia.eus helbidearekin eta zure eskaera kudeatuko dugu. Iraupena: 4 ordu